

Kaloria gutxiko dietak primateen hilkortasuna txikitzen du

Kaloria gutxiko dietak adinarekin zerikusia duten gaitzak pairatzeko arriskua jaitsi ez ezik, hilkortasuna ere txikitzen du, Wisconsin Unibertsitateak 25 urtean egindako ikerketa baten ondorioetan jasotzen denez.

Nature Communications aldizkariak ezagutzera eman duen ikerketa 1989an hasi zen, eta, orduetik, 25 urtean, 76 Reshus makakoen dietaren jarraipena egin du. Denbora-tarte horretan, horietako batzuek nahi beste jateko aukera izan duten bitartean, gainerakoei % 30 gutxiago eman diete jateko.

Wisconsingo Primateen Ikerketa Zentro Nazionalan egin da ikerketa. Abiatu zenean tximuek 7 eta 14 urte arteko adina zuten. Nahi beste jan dutenekin



Ezkerreko tximuek kaloria gutxiko dieta izan du eta eskuinekoak, berriz, ez. ARG.: JEFF MILLER.

alderatuz, adinarekin zerikusia duen gaitxotasunak garatzeko arriskua 2,9 bider txikiagoa izan dute gutxiago jan dutenek eta hiltzeko arriskua hiru aldiz txikiagoa.

Kaloria gutxiko dietak biziraupen duen eragin positiboa zizare eta saguekin egindako entseguetan frogatu izan da aurretik. Mantenugai funtsezkoak eskaintzen dituen kaloria gutxiko dietak euli, sagu eta legamien bizia % 40 luza dezakeela ikusi izan da.

Hala ere, primatetan izan zitezkeen onurak zalantzan jarri zituzten 2012an ezagutzera emandako beste ikerketa baten ondorioek. Wisconsingo ikertzaileen ustez, argitaratu berri den ikerketa garrantzitsua da frogatzen duelako "behe mailako organismoen ezaugarri biologikoen interpretazioa primatentzat ere egokia dela", Richard Weindruch irakasleak azaldu duenez. ●



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

kluster@soziolinguistika.org

<http://www.soziolinguistika.org/>

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde K.P. 20140 - Andosain

BAT aldizkariaren 89. zenbakia! HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK LAN SARITUEN ARTIKULUAK BAT ALDIZKARIAN ARGITARATU BERRIAK

1. SARIA

Lantokietako ahozko erabileraren neurketak. Interpretaziorako eta interbentziorako hainbat gako. Haritz Goikoetxea. EMUN Koop.

02. SARIA

Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo. Garbiñe Bereziartua. DREAM taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea

3. SARIA

Sormen-ekosistema bat euskarazko komunikazioarentzat. Aitor Zuberogoitia, Goio Arana, Eneko Bidegain eta Txema Egaña. Hezikom-HUHEZI- Mondragon Unibertsitatea

BESTE EGILE BATZUK...

Itxaro Artola, Karmelo Ayesta, Gorka Blanco Mata, Arlane Ensunza, Miguel Galicia Lambarri eta Sergio Foruria Amunategi, Etxitxu Harignordoquy

